

FITXA: 241 - AGINDUA, 2026ko maiatzaren 26koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, 2026ko ekitaldirako lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak arautzen eta iragartzen dituen.

Nori zuzendua:

EAEko hiriburuen turismo-sustapenaren arduradun diren euskal erakunde publikoak (udalak, toki-erakunde autonomoak, tokiko enpresa-entitate publikoak eta titulartasun publikoko merkataritza sozietateak), baita eskualdeko turismo-lankidetzako erakundeetako kide ez diren udalerrriak ere, baldin eta erakunde horiek ez badira existitzen edo ez badira eratu beren esparru geografikoan, baldin eta toki-erakunde horiek turismo-bulegoen edo informazio-puntu turistikoen titularrak badira, Itourbask-Euskadiko Turismo Bulegoen sarekoak badira eta, betiere, urte guztian irekita badaude.

EAEko kokatutako erakunde publiko edo pribatuak (kuadrillak eta mankomunitateak, garapen-agentziak, landa-garapeneko elkarteak, partzuergoak, erakunde publiko eta pribatuak osatutako merkataritza-sozietateak, beste erakunde eta elkarte batzuk), baldin eta bertako eskualde-eremuan edo eskualdez gaindi garatzen badituzte jarduerak, turismo-lankidetzako erakunde gisa edo turismo-produktuak kudeatzen dituzten erakunde gisa.

Deialdia: EHAA - Euskal Herriko **Deialdiaren data:** 2026/06/05
Agintaritzaren Aldizkaria

Sarbide-esteka:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1020613/>

Erreferentziako araudia: AGINDUA, 2026ko maiatzaren 26koa. -
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/06/2602443e.pdf>

Eragin eremuak: Turismoa

Zenbatekoa: 1.840.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/06/06

Aurkezteko azken eguna: 2026/07/06

Aurrerakina: Ez da zehaztu.

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: 25.000 eta 50.000 € artean

Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Tramitazioa: Norgehiagoka.

Laburpena

Dirulaguntza honen xedea da Euskadiko helmugen erakargarritasuna eta kalitatea hobetuko duten lurralde-proiektu turistikoak babestea, 2026ko ekitaldirako fluxu turistiko berriak dinamizatuz, banatuz eta sortuz.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- a) EAEko helmugen erakargarritasuna eta esperientzia turistikoa hobetzen duten lurralde-proiektu turistikoak; II. eranskinean zehazten dira haien ezaugarriak, eskakizunak eta baldintzak.
- b) Helmugen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzen duten proiektuak; III. eranskinean zehazten dira haien ezaugarriak, eskakizunak eta baldintzak.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

1.- Oro har, gastu diruz lagungarritzat hartuko dira, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikulua arabera, diruz lagundutako jardueraren izaerari inongo zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egin eta fakturatzeko direnak, eta agindu honen 16. oinarrian dirulaguntza justifikatzeko ezarritako epea baino lehen ordaintzen direnak. Gastu horiek II. eta III. eranskinetan zehazten dira. Zeharkako zergak ere sartu ahal izango dira, baldin eta azken horiek ezin badira berreskuratu edo konpentsatu.

2.- Aurrekoa hala izanik ere, 2026. urtean garatuko diren jarduketarako 2025eko ekitaldian egindako gastu-aurrerakinak onartuko dira, kontrataziorako baldintzek hala eskatzen dutenean (azoketarako guneak erreserbatzea, Espainiako eta nazioarteko sareetako kide izateko kuotak).

Gastuetarako aldi hautagarria

Ikus diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen atala.